


Euskarak milaka aurpegi,  
milaka ahots



guk ere  
eUSKARAZ



kultur  
egitaraua

# gazteek ere euskaraz

Abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunari begira, urriaren bukaeratik abenduaren 10era bitartean, bereziki gazteei zuzendutako programazioa atondu dugu erakunde eta hiriko eragile ugariak. Berrogeita hamar erakunde eta elkarte baino gehiago aritu gara elkarlanean euskarazko kultur egitarau zabal hau prestatzen.

Azaroa euskarazko programazioz bete-bete datorren arren, urtean zehar ere ekitaldi ugari izaten da euskaraz Donostian, eta urtez-urte gehiago izatea da gure helburua. Donostian 24 urte bitarteko gazteen %90 euskalduna da edota euskara ulertzen du eta horiei parte hartzeko gonbita egiten diegu esku-programa honetan aurkezten diren ekitaldietan eta urtean zehar gure hirian euskaraz antolatzen diren ekimenetan.

## **Euskarak milaka aurpegi, milaka ahots mosaikoa**

Programazio hau osatuz, **Nik ere euskaraz, Guk ere euskaraz** eta beste hamaika aldaera hartzen dituen lelo mutantearekin gazteen artean euskararen erabilpena sustatzeko kanpaina jarriko dugu abian.

**www.nikereeuskaraz.net** webgunearen bidez kanpainarekin atxikimendua adierazten duten pertsonen argazkiekin osaturiko mosaiko bat egingo dugu: Euskarak milaka aurpegi, milaka ahots. Norberak bere argazkia webgunera igo ahal izango du modu errazean eta automatikoki argitaratuko da webguneko mosaikoan, aurretik bat egin duten gainontzeko pertsonen argazkiekin batera. Taldekako parte hartzea ere posible da **www.gukereeuskaraz.net** helbidean.

**Atxikitu zu ere!**

# kultur egitaraua

## Beldurra



### Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren XXI. Astea

#### Urriak 30 - Azaroak 5

Victoria Eugenia

Antzoki Zaharra

Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren XXI. Astean euskaraz azpidatzitako hamar film luze eta hamalau film labur proiektatuko dira.

**Antolatzailea:** Donostia Kultura eta Euskararen Udal Patronatua

#### Urriak 30, larunbata. 19:45



Victoria Eugenia

#### Deabruaren gaua

(*Night of the Demon*, 1957). Jacques Torneur. Erresuma Batua. 95 min.

Henry Harrington irakaslea, aspaldi batez Julian Karswellen demonologia jarduerak ikertzen eta jendaurrean salatzen ziharduena, ezohiko ezbehar baten ondorioz hil da. John Holden psikologoak, irakaslearen ikerlanari jarraituko dio haren ilobak lagunduta.

#### 22:30



Victoria Eugenia

#### Ezkontza kimikoa

(*Chemical Wedding*, 2008). Julian Doyle. Erresuma Batua. 106 min.

Zientzia, informatika, berraragiztatze eta adimen istorioa. Monty Python taldearen kolaboratzaile eta Iron Maiden taldeko abeslari Bruce Dickinson mitikoarekin elkarlanean egindako filma.

## Urriak 31, igandea. 17:30



Victoria Eugenia  
**Zumezko gizona**

(*The Wicker Man*, 1973). Robin Hardy.  
Erresuma Batua. 88 min.

Neskato bat desagertu da eta horren inguruan ikertzen ari dela, Scotland Yard-eko polizia sarjentu bat Summerisle uharte urrunera iristen da. Lurreratu bezain laster, abegi handikoa ez den jendeaz beteriko leku arrotz batera iritsi dela ohartu da.

19:45



Victoria Eugenia  
**Rare Exports**

(*Rare Exports*. 2009). Jalmari Helander.  
Finlandia-Norvegia-Frantzia-Suedia. 78 min.

Gabonetako ipuin bat da. Istorioa Dickensen Gabonetako ipuina bera baino askoz ere maltzurragoa da.

## Azarook 1, astelehena. 19:45



Victoria Eugenia  
**Tucker & Dale gaizkiaren kontra**

(*Tucker & Dale vs. Evil*. 2010) . Eli Craig.  
Kanada. 86 min.

Gazte talde bat basoan barneratzeko prestatzen ari da. Virginiako bi laborarik denda batean topatzen dituzte, txangoa hasi aurretik. Barre-algarak eragingo dituen filma.

## Azarook 2, asteartea. 19:45



Victoria Eugenia  
**Banpiroak**

(*Vampires*, 2007). Vincent Lanoo. Belgika.  
90 min.

Banpiroak hobeto ezagutzeko aukera izango dugu: nola bizi diren Brusela bezalako hiri handi batean, zer amets eta itxaropen dituzten, beraien beldurrak, elikatzeko ohiturak, lanak eta abar .

### Azaroak 3, asteazkena. 19:45



Victoria Eugenia  
**Deabruak hartua**

(*Bedevilled*. 2010). Jang Cheol-soo.  
Hego Korea. 91 min.

Seulgo neska gazte bat irla batera joan da haurtzaroko lagun batekin elkartzeko. Iristean ohartuko da bertako biztanleek laguna esklabo bihurtu dutela.

### Azaroak 4, osteguna. 19:45



Victoria Eugenia  
**Atea**

(*Die Tür*. 2009). Anno Saul. Alemania.  
99 min.

Ezaba al daiteke erabat iragana? Horren erraza al da zoriaren bidea aldatzea? Fantasiatzko zinemaren eta thrillerraren arteko nahaste harrigarria.

### Azaroak 5, ostirala. 19:45

Victoria Eugenia

#### **Film laburren lehiaketa**

14 film proiektatuko dituzte euskaraz azpidatzita. 143 min.

23:59



Victoria Eugenia  
**Serbiar film bat**

(*A Serbian Film/ Srpski Film*, 2009).  
Srdjan Spasojevi. Serbia. 104 min.



Urteko filmetan neurrigabekoenen artekoa. Beldurzaletasunaren denboraldiko panorama irauli duen pelikula; denek, ikusi ez badute ere, hitzetik hortzera darabiltena.

## Azaroak 5, ostirala. 17:00



Antzoki Zaharra


### Nosferatu, izuaren sinfonia bat

(*Nosferatu, eine Symphonie des Grauens*, 1921). F. W. Murnau. Alemania. 107 min.

Zinema mutuaren klasikoa. Friedrich Wilhelm Murnauen maisulana, genero honetako zinemaldi guztietan urtero proiektatu beharko litzatekeena. Aitortu ez den moldaketa, Bram Stokerren nobelarena (izan ere, horrexegatik egon zen denboraren poderioz betiko galtzeko zorian).

## Bide Ertzean "Don Inorrez"

### Azaroak 3, asteazkena. 19:00



Fnac

Taldeak geldialdi bat egin zuen 2008an, Leidor Sessions zuzeneko diskoa prestatzeko. Hamar urtean izandako bilakaera itzela harrotasunez erakusteko aitzakia izan zen, baina baliteke inork pentsatzea taldeari sormena agortzen ari zitzaiola... Oker handia. Ez da urtebete pasa Leidor Sessions plazaratu zutenetik eta Don Inorrez heldu zaigu, Bide Ertzeanek une gozoan jarraitzen duela baieztatzen duen diskoa.

**Antolatzailea:** Fnac

## Amaraberriko historia

### Azaroak 3, 20:00



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)

Donostiako auzoari buruzko hitzaldia  
Iñaki Egañak zuzenduta.

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Ttakun Ttan Ttakun

**Azaroak 4, osteguna. 19:00**



Fnac

Juan Mari Beltran 'Txalaparta' proiektuaren jarraipenarekin datorkigu: Ttakun Ttan Ttakun. Argiz, irudiz eta soinu osatutako ibilbide bat aurkeztuko digu, hain gurea baina aldi berean hain ezezaguna den instrumentu honen inguruan.

**Antolatzailea:** Fnac

**Azaroak 6, larunbata. 20:00**

Kursaal

**Antolatzailea:** Kursaal Fundazioa

## Mintzamina: Euskara eta abertzaleak

**Azaroak 4, osteguna. 19:00**



Casares-Tomasene Kultur etxea (Altza)

Joxe Manuel Odriozolak, hedabideek nazioaren muin-muineko auziak argitu ordez nahastu egiten dituelakoan, sasia garbitzeari ekin dio, abertzaleen artean euskarak zer leku hartzen duen aztertuz.

**Antolatzailea:** Bizarrain kultur elkarte

## "Errautsak". Le Petit Théâtre du Pain

**Azaroak 6-7, larunbata-igandea. 20:00**



Gazteszena (Egia)

Lagun batzuk hileta baterako biltzen dira, baina azken agurra garai batekoa festa basati bihurtuko da. 2009an Donostia Antzerki Saria eskuratu zuen antzezlan. 10€

**Antolatzailea:** Donostia Kultura eta Euskararen Udal Patronatua

## "Urdallue Basoa eta Ura". bisita gidatua

**Azaroak 7, igandea. 09:15 eta 13:00**



Artikutza

Urdallue erreka eta inguruko basoez gozatzeko aukera. 6-16 urtekoentzat: 1,5€/ 16 urtetik gora: 2,5€. Zortzi kilometroko ibilbidea.

**Antolatzailea:** Donostiako Udala

## Literatura eta kafea zikloa

**Azaroak 8, astelehena. 17:00**



Lugaritz Kultur etxea (Antigua)

Kafe lurrin goxoz lagunduta, Asun Garikanoren "Far Westeko Euskal Herria" liburuaz aritzeko aukera.

**Antolatzailea:** Donostiako Udaleko Berdintasun eta Lankidetzeta Atala

## Euskal Liburuaren Gaua

**Azaroak 8, astelehena. 20:00**



Victoria Eugenia Club

Ekitaldian Dabilen Elea 2010 saria emango da, euskal liburugintzaren alorrean ibilbide jakin bati egiten zaion errekonozimendu gisa.

**Antolatzailea:** EIE, EIZIE, EEE eta Galtzagorri elkarteak.



## Emakumea izatea Kartzelan

**Azaroak 10, asteazkena. 19:30**



Koldo Mitxelena

Kartzela barruko bideo baten, Amaia Arrieta Arrasateko preso ohiaren eta Larraitz Ugarte abokatuaren eskutik, lehen pertsonan ezagutuko dugu emakume presoen errealitatea.

**Antolatzailea:** Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte

## "Hilotzak hobitik ateratzen duintasunak berreskuratzen"

**Azaroak 10, asteazkena. 20:00**



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)

Lurdes Herrasti hizlariaren eskutik hitzaldia

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Urko Menaia

### "Ametsak eta Oroitzapenak"

**Azaroak 11, osteguna. 19:00**




Fnac

Menaiaaren kantuek ez diote gaur egungo joerari jarraitzen. Haren kantagintzak 60ko eta 70eko kantautoreen estetika musikala eta sentsibiltate poetikoa bereganatzen ditu, Imanolek, Xabier Letek, Paco Ibañezek edota George Brassensek gailurrera eraman zutena

**Antolatzailea:** Fnac

## Literatura hitzaldia "Eskuen sustraiak"

**Azaroak 11, osteguna. 19:30**



Ernest Lluch Kultur etxea (Amara)

Susak kaleratutako poesia liburuan oinarritutako ikuskizuna da. Oier Guillanen eta Asier Sarasolaren hitzak, Ander Fernandezen musika eta Idoia Beratarbideren pintura uztartzen dira zuzenean.

**Antolatzailea:** Donostia Kultura

## Xentimorik gabe

**Azaroak 11, osteguna. 20:00**



Loiolako Kultur etxea

Bi artistek urte asko eman dituzte munduan zehar bueltaka. Fama ezagutu dute, luxua dastatu eta musikari onenekin egon dira oholza gainean. Jarraitzaile mordoa dute bost kontinenteetan barna, baina heldu da etxera itzultzeko ordua.

**Antolatzailea:** Hontza elkarte, Donostia Kultura

## UK Bill eta Governors

**Azaroak 12, ostirala. 20:30**



Doka

UK Bill taldeak kanta berriak sortzeko atsedenaldea hartuko du laster. Aukera aprobetxatu! Governors taldeak berriz, Frenetikodrome disko berriko kantak eskainiko ditu.

**Antolatzailea:** Doka

## Irteera. "Gure historia ezagutuz: Erromatarren garaiko meategiak"

**Azaroak 13, larunbata. 20:00**



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)

Erromatarren garaiko meategiak ikusi eta haien historia ezagutzeko aukera.

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Xabinaitor

**Azaroak 11-14. 20:00 / Azaroak 13. 20:00 eta 22:30**



Antzoki Zaharra

8 urtetik 158 urte bitartekoentzako antzerki lana Wazemankeko lan-taldearen eskutik.

**Antolatzailea:** Donostia Kultura eta Euskararen Udal Patronatua

## Bertso saioa: San Martin topaketak

**Azaroak 14, igandea. 13:30**



Eliza kalea (Loiola)

Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolarien saioa. Ondoren, bertso bazkaria egingo dute auzoko Hontza Elkartearen.

**Antolatzailea:** Hontza elkarte eta Donostia Kultura

## "Gure mikrohistoria: 1930-1943"

**Azaroak 17, asteazkena. 20:00**



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)  
Mikel Legorburu hizlariaren eskutik hitzaldia.

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Nosferatu zikloa:

François Truffaut Zinemarako grina

**Azaroak 17, asteazkena. 20:15**



Antzoki Zaharra

"Mutikoak" eta "Tiro egin piano-  
jotzaileari" filmak eskainiko dira euskaraz  
azpidatzita. 3,70€

**Antolatzailea:** Donostia Kultura

## Gogoeta Tailerra

**Azaroak 18, osteguna. 19:00**



Casares-Tomasene Kultur etxea (Altza)

Altzako euskal kulturaren egoera  
aztertuko da gogoeta tailer honetan

**Antolatzailea:** Bizarrain Kultur Elkarte

## Bertso afaria

**Azaroak 19, ostirala. 20:00**



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)

Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariekin  
bertso afaria. 20 €.

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Kantu Jira

**Azaroak 20, larunbata. 12:00.**



Fermin Calbeton kaletik abiatuta. 18:00etan erromeria egingo da Konstituzio plazan.

Euskal kantak taldean eta kalean abesteko ekimena. Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin.

**Antolatzailea:** Donostia Kantuz.

## Esne Beltza eta DJ dz

**Azaroak 20, larunbata. 20:30**




Doka

"Noa" izena du Esne Beltzaren bigarren diskoak. Estilo desberdin asko biltzen dituen lana labetik atera berri da eta zuzenean entzuteko aukera aparta dago Antiguan.

**Antolatzailea:** Doka

## Kepa Junkera "Herria"

**Azaroak 22, astelehena. 19:00**



Fnac

Herria, Euskal Musika Tradizionalaren Trilogiaren proiektuko azken parte. Kepa Junkerak 24 abestiz osatutako disko berri hau aurkezten digu, duela 3 urte hasitako beste lurralde batzuetarako bidaia biribilduz.

**Antolatzailea:** Fnac

## Literatura solasaldia: "1.280 arima"

**Azaroak 22, astelehena. 19:30**



Liburutegi Nagusia (San Jeronimo kalea)

Jim Thompsomen liburuari buruzko solasaldia, Iñigo Aranbarrik gidatua.

**Antolatzailea:** Donostia Kultura

## Santa Zezilia eguneko Kantaldia, Kalez Kale

**Azaroak 22, astelehena. 20:00**



Ikasbide Kultur Elkarte (Amara Berri)

Santa Zezilia eguna dela eta, kantaldia egingo dute auzoko kaleetan zehar.

**Antolatzailea:** Ikasbide Kultur Elkarte

## Irakurketa Musikatua: "Off-On"

**Azaroak 26, ostirala. 20:00**



Doka

Mintzalagunaren ikasturtearen hasierako ospakizun moduan, Yolanda Arrietaren liburuan oinarritutako irakurketa musikatua egingo da.

**Antolatzailea:** Bagera eta Txirain elkarte

## Zea Mays

**Azaroak 26, ostirala. 20:30**



Doka

13 urte igaro diren arren talde bilbotarra sortu zenetik rock sendoa eta indartsua egiten jarraitzen du.

**Antolatzailea:** Doka

## Intxaurrondoko Euskararen Eguna

**Azaroak 26, ostirala**



Intxaurrondo

Euskararen Eguneko ospakizuna, Gaztain jatearen inguruan.

**Antolatzailea:** Plazara Goaz elkartea

## Donostia bertsoan

**Azaroak 26, ostirala. 22:30**



Lugaritz Kultur etxea (Antigua)

Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbiorekin bertso saioa. Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea

Sarrera doan gonbidapenarekin. Gonbidapenak azaroaren 22tik aurrera jaso daitezke (16:00-20:30).

**Antolatzailea:** Donostia Kultura eta Bertsozale Elkartea

## Antiguako Euskararen Eguna

Azaroak 27, larunbata



Antigua

Zenbait ekitaldi antolatuko dira egunean zehar.

**Antolatzailea:** Auzoko hainbat eragile

## Parte Zaharreko Euskararen Eguna

Azaroak 27, larunbata



Parte Zaharra

Zenbait ekitaldi antolatuko dira egunean zehar.

**Antolatzailea:** Auzoko hainbat eragile

## Groseko Euskararen Eguna

Azaroak 27, larunbata



Gros

Zenbait ekitaldi antolatuko dira egunean zehar.

**Antolatzailea:** Auzoko hainbat eragile

## Egiako Euskararen Eguna

Azaroak 27, larunbata



Egia

Zenbait ekitaldi antolatuko dira egunean zehar.

**Antolatzailea:** Auzoko hainbat eragile



## Descontrol + Skakeitan

**Azaroak 27, larunbata. 20:30**



Doka

Aurtengo udan Donostian izan ziren bi talde hauek. Urtea bukatu aurretik elkarrekin arituko dira berriro.

**Antolatzailea:** Doka

## Kaxmir eta Ladakh Himalaya ezezaguna: Asier Aranzabal, Mila Gallastegi

**Azaroak 29, astelehena. 19:30**



Okendo Kultur etxea

Mendien magal berde eta basoetan gora, mendi eta glaziarretan zehar ibiltari joan dira, tridenteak eta abluzioetarako ura eskuetan eta Shivari abestuz doazen erromes hinduisten pausuei jarraituz, Amanath (4000 m) kobazuloraino.

**Antolatzailea:** Donostia Kultura eta Club Vasco de Camping Elkartea

## Gazteak Antzerkira: "Juno"

**Azaroak 29-30, 10:00 / 12:00**



Lugaritz Kultur etxea (Antigua)

Zer gertatuko litzateke 15 urteko neska bat haurdun geratuko balitz? Gurasoek zer pentsatuko lukete? Eta ikaskideek? Abortatu edo haurra izan eta zaindu beharko luke? Zurriola antzerki eskolaren eskutik, Donostiako ikastetxeentzako antzezlan.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua

## Emakumeen etxearen Euskararen astea

### Azaroaren 30etik abenduaren 2ra



Emakumearen Etxearen egoitza  
(Okendo 9)

**Azaroaren 30**ean Irakurle Kluba: "Desira desordenatuak" liburua. **Abenduaren 1**ean Hitz eta Pitz tertulia feminista.

Gaia: "Umeen elkarbanatutako zaintza". **Abenduaren 2**an Emakumeak eta Bertsolaritzari buruzko dokumentala jarriko dute.

**Antolatzailea:** Emakumeen etxea

## "Gazteak zinera"

### Abenduak 1 eta 3



Antzoki Zaharra

Donostiako ikastetxeentzako proiektzioa.  
12-20 urte bitarteko gazteek bi film  
ikusteko aukera izango dute.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua

## Mintzodromoa

### Abenduak 1, asteazkena. 16:00



Ipotx taberna (Altza)

Euskara ikasten ari den jendea euskara dakien  
jendearekin nahasiko da mahai baten inguruan  
eta interes orokorreko gaiez jardungo dute.

**Antolatzailea:** Bizarrain Kultur Elkarte

## Gazteak antzerkira: "Shakespeare osoa"

**Abenduak 2, osteguna** 11:00 / 13:00



Antzoki Zaharra

Donostiako ikastetxeentzako antzezlan.  
12-20 urte bitarteko gazteei  
zuzendutako antzerki lana Zurriola

Antzerki Eskolak eskainita.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua

## Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gizartean

**Abenduak 2, osteguna.** 19:00



Doka

Euskarazko edukien sortzeari buruz,  
euskarazko sare sozialen bilakaerari buruz,  
edota euskaldunok Interneten dugun

presentziaz hausnarketa bideratzeko solasaldi  
partehartzailea.

**Antolatzailea:** UEU

## Gazteak Antzerkira: "Lisistrata"

**Abenduak 2, osteguna.** 20:00



Antzoki Zaharra

Zurriola Antzerki Eskolak eskainitako  
antzezlan. Doako sarrera 25 urte edo  
gutxiagokoentzat. Gainerakoek 3€

ordainduko dute.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua

## Bisita gidatuak:

Chillida Leku eta Kutxa Kuboa



### Abenduak 3, 4 eta 5.

**Abenduaren 4**an Chillida Lekura bisita, 10:30ean. **Abenduaren 3**an 19:00etan eta **abenduaren 4** eta **5**ean 12:00etan, "Jai Alai. Euskal pilotaren edertia" bisita gidatua, Kutxa Kuboa aretoan.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua, Chillida Leku eta Kutxa Kuboa

## Mintzodromoa

### Abenduak 3, ostirala



Artess Café

Euskara ikasten ari den jendea euskara dakien jendearekin nahasiko da mahai baten inguruan eta interes orokorreko gaiez jardungo dira, berriketa lasaian kafe bat hartuz.

**Antolatzailea:** Bagera, Euskararen Udal Patronatua eta Donostiako Euskaltegiak

## Kontalaria

**Abenduak 3, ostirala.** 12:30etatik-14:00 etara /  
16:00etatik-18:30etara

Kontalaria!



Erdigunean

Unitate mugikor batean, horrela nahi duen orok, ipuin kolektiboa, elkarreraginezkoa gauzatzeko aukera izango du.

**Antolatzailea:** Eusko Jaurlaritza

## Irakurketa eguna

**Abenduak 3, ostirala. 18:00**



Amara

Eider Imazek irakurketa saioa gidatuko du Donosti Berri elkartean (Osasuna 1, behea).

**Antolatzailea:** Donosti Berri eta Amara Auzo Elkartea-Amara Bai

## Plazatik Plazera. Kuba-Uruguai-Euskal Herria. Repentistak-Payadoreak-Bertsolariak

**Abenduak 3, ostirala. 20:00**



Antzoki Zaharra

Abenduak 3, Plazatik Plazera. Bi bertsolari, Uruguaiako bi payadore eta Kubako bi repentista arituko dira musikari baten laguntzarekin. Doako sarrera 25 urte artekoentzat. Gainerakoek 3€.

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua, Bertsozale Elkartea eta Eusko Jaurlaritza

## Zurrunbiloa

**Abenduak 3, ostirala. 18:30 / 23:00**



Boulevard

Musika emanaldiak eta kultur-ekintza mordoak!

**Antolatzailea:** Euskararen Udal Patronatua eta Kutxa

## Gaztezulo bideo-lehiaketako sari-banaketa eta festa

**Abenduak 3, ostirala. 22:00**



Doka

Gaztezulo bideo-lehiaketaren saridunak ezagutzera emango dira.

**Antolatzailea:** Gaztezulo, Euskararen Udal Patronatua eta Eusko Jaurlaritza

## Reala-Athletic derbya

**Abenduak 5, igandea**



Eta asteburuan...

Derbyan ere euskaraz.

**Antolatzailea:** Futbolzaleak

## Loiolako Euskararen Eguna. Kantu afaria-Basurde Jatea

**Abenduak 10, ostirala. 21:30**




Hontza elkartea (Loiola)

Basurdea bi modutara prestatua afaltzeko aukera izango da eta ondoren abesti kuttunenak abesteko tartea izango da giro paregabea.

**Antolatzailea:** Hontza elkartea

# Euskarak milaka aurpegi, milaka ahots

nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



nik ere  
euskaraz



Parte hartu euskararen  
mosaikoan zure  
argazkia bidaliz



[www.nikereeuskaraz.net](http://www.nikereeuskaraz.net)  
[www.gukereeuskaraz.net](http://www.gukereeuskaraz.net)

## Antolatzaileak:

Amara Auzo Elkarteak-Amara Bai, Kutxa Fundazioa, Eusko Jaurilaritza, Donostiako Udaleko Auzoak eta Herritarren Partaidetza, Artesse Cafe, Donosti Berri, Donostia Kantuz, Ikasbide Kultur Elkarteak, Zurriola Antzerki Eskola, Hontza elkarteak, Txirain elkarteak, Plazara Goaz elkarteak, Club Vasco de Camping Elkarteak, Emakumeen etxea, Antiguotarrak Elkarteak, Auskalo Elkarteak, Izurun Elkarteak, Istungorra Elkarteak, AEK, Kai Harripe – Arrano Beltza Elkarteak, Herria Elkarteak, AZGA, Alde Zaharreko Gazte Asanblada, Xirimiri Elkarteak, Kresala Elkarteak, EHE taldea, Herri Dantza, Kantu Jira, Arrano Elkarteak, Antxeta - Ttan Ttakun, Porrontxotako Batzordeak, Egiako Bertso Eskola, Marruma Elkarteak, Groseko Gazte Asanblada, Euskararen Udal Patronatua, Donostia 2016, Donostiako Udaleko Berdintasun eta Lankidetzak Atal, Donostia Kultura, Bizarrain kultur elkarteak, Fnac, Kursaal Fundazioak, EIE, EIZIE, EEE, Galtzagorri elkarteak, Bagera, Bertsozale Elkarteak, UEU, Gaztezulo, DOKA, Chillida Leku, Kutxa Kubo.

